

BIRPASATZEKO ARIKETA INTERAKTIBOAK

2. ATOMOAK OSATZEN DUTEN PARTIKULAK

10. Zer karga mota dute elektroiek? Eta protoiek?

elektroiek karga.....

protoiek karga

11. Lotu zientzialari bakoitzaren izena atomoaren munduan egin duen ekarpenarekin:

1) Atomo zatiezinak

2) Elektroia

3) Neutroia

4) Protoia

a) Thomson

b) Dalton

c) Rutherford

d) Chadwick

12. Osatu esaldi hauek:

a) Elektroiek karga positiboa/negatiboa dute.

b) Protoiek karga positiboa/negatiboa dute.

c) Neutroiek protoien/elektroien antzeko masa dute

d) Neutroiak/protoiak ez du karga elektrikorik.

13. Atomoak karga elektrikodun partikulaz osaturik badaude, zergatik dira neutroak?

- a) Neutroiak dituztelako.
- b) Elektroien eta neutroien kopuru berbera dutelako.
- c) Elektroien eta protoien kopuru berbera dutelako.
- d) Protoien eta neutroien kopuru berbera dutelako.

14. Atomo batek 3 protoi, 3 elektroi eta 4 neutroi ditu, eta 1 elektroi hartzen du. Zer karga hartzen du?

- a) Karga positiboa.
- b) Karga negatiboa.
- c) Karga neutroa.

15. Atomo batek 3 protoi, 3 elektroi eta 4 neutroi ditu, eta 1 elektroi galtzen du. Zer karga hartzen du?

- a) Karga positiboa.
- b) Karga negatiboa.
- c) Karga neutroa.

16. Arrazoituz esaldi hauek zuzenak ala okerrak diren:


- a) Gorputz neutroek ez dute karga elektrikorik. Z / O
- b) Karga positiboa duen gorputz batek neutroiak jaso ditu. Z / O
- c) Karga positiboa duen gorputz batek elektroiak jaso ditu. Z / O

21. Elektroiak eta protoiak aurkitu zituztenean, Daltonen teoriaren zer atalek galdu zuen balio zientifikoa?

- a) Atomoak zatietzen dira.
- b) Karga elektrikoa atomoan dago.
- c) Atomo guztiak ez dira neutroak.
- d) Protoiak, neutroiak eta elektroiak zatietzen dira.

23. Kopiatu beheko irudia eta bete hutsuneak, hitz hauek erabiliz:

- Protoia.
 - Elektroia.
 - Nukleoa.
 - Neutroia.
- Idatzi partikula bakoitzaren izena, eta ondoan, karga positiboa (+), negatiboa (-) edo neutroa (0) duen.



24. Gorputz bat elektrizatzen da, honako hauek igarotzen badira:

- a) Protoiak.
- b) Elektroiak.
- c) Ioiak.
- d) Neutroiak.

25. Begiratu irudiari. Globo bat trapu batez igurztzen badugu, globoa elektrizatu egingo da.

- a) Zer karga-truke gertatu da? elektroiaren trukea / protoien trukea
- b) Zeinek hartu ditu kargak? globoak / trapuak
- c) Zer karga mota hartzen du globoak? positiboa / negatiboa
- d) Zer karga mota hartzen du trapuak? positiboa / negatiboa

26. Esaldi hauetatik, zein dira zuzenak eta zein okerrak? Zuzendu esaldi okerrak.

- a) Thomsonen eredua: atomoaren masaren zatirik handiena karga negatiboari dagokio, eta bertan daude itsatsita protoiak. Z / O
- b) Rutherforden eredua: atomoak nukleo nagusi bat du, eta bertan daude karga positiboa eta negatiboa. Z / O
- c) Bohrren eredua: atomoaren azala zenbait geruzaz osaturik dago. Geruza horietan daude elektroiak. Z / O

28. Bohrren eredu atomikoa kuantizaturik dago. Zer esan nahi du horrek?

- a) Elektroiak nukleotik zenbait distantzian dauden orbitetan soilik egon daitezkeela.
- b) Atomoaren azalean elektroiak biraka dabiltzala, nukleoaren edozein lekutan orbitak eginez.
- c) Atomo guztiek kanpo atal bat dutela eta elektroiak bi orbita eliptikotan dabiltzala biraka

